UDAL EUSKALTEGIA

# ARRIGORRIAGAKO UDAL EUSKALTEGIKO ARTEZKARITZA BATZORDEKO AKTA

# ACTA DEL CONSEJO RECTOR DEL ORGANISMO AUTÓNOMO ARRIGORRIAGAKO UDAL EUSKALTEGIA

| **Ohiko bilera** | **Reunión ordinaria** | |
|---|---|---|
| **Eguna** / Día: | **2024/01/17** | |
| **Deialdia** / Convocatoria: | **Lehena** / Primera | |
| **Hasiera ordua** / Hora inicio: | **12:00** | |
| **Amaiera ordua** / Hora finalización: | **12:15** | |
| **Bertaratutakoak** / Asistentes: | | |
| **Presidente delegatua** / Presidente delegado: | Gorka Etxebarria Elordui | EH-BILDU |
| **Batzordekideak** / Vocales: | Gotzon Ajuria Fisure | EAJ-PNV |
| | Iratxe Rubio Gil | A.GARA |
| | Maite Barahona Díaz | Udal talde sozialista |
| | José Ignacio Fernández Grajera | NOA |
| | Josune Zamalloa San Miguel | Zuzendari akademikoa |
| **Bertaratu ez direnak** / Ausentes: | Nerea González Méndez | Ikasleen ordezkaria |
| | Ander Alonso Lopez | HABE |
| **Idazkari delegatua** / Secretaria delegada: | Begoña Ealo Agirre | |

IFZ: P4800044B

### 1.- AURREKO BILERAREN AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA (2023-12-13).

Artezkaritza Batzordeak aldeko 17 botorekin (EH-BILDUren 7, EAJ-PNVren 6, Udal

### 1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA REUNIÓN ANTERIOR (13-12-2023).

El Consejo Rector por 17 votos a favor (7 de EH-BILDU, 6 de EAJ-PNV, 2 de Udal talde



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

talde sozialistaren 2, A.GARAren 1 eta NOAren 1) aurreko bileraren akta onartzea erabaki du.

sozialista, 1 de A.GARA y 1 de NOA) acuerda aprobar el acta de reunión anterior.

**2.- PRESIDENTE DELEGATUAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

**2.- DAR CUENTA DE LAS RESOLUCIONES DE LA PRESIDENTA DELEGADA.**

Artezkaritza Batzordea 2023ko 39. zenbakitik 42.era bitartean hartutako ebazpenen jakinaren gainean geratu da.

El Consejo Rector se da por enterado de las resoluciones dictadas por el presidente delegado desde la número 39 hasta la 42 del año 2023.

**3.- 1/2023 ESPEDIENTEARI BURUZKO PRESIDENTE DELEGATUAREN EBAZPENAREN BERRI EMATEA: HORREN BIDEZ, ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUKO KREDITUAK ALDATUKO DIRA KREDITU TRANSFERENTZIAREN BIDEZ.**

**3.- DAR CUENTA DE LA RESOLUCIÓN DEL PRESIDENTE DELEGADo REFERENTE AL EXPEDIENTE 1/2023 DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS DEL PRESUPUESTO DEL ORGANISMO AUTÓNOMO, POR TRANSFERENCIA DE CRÉDITOS.**

Artezkaritza Batzordea kreditu gehigarri bidezko aurrekontuaren aldaketa onartzeko presidente delegatuak hartutako ebazpenaren jakinaren gainean geratu da (Esp. 1/2023). Era berean kontu-hartzailearen finantza iraunkortasunari buruzko txostenaren jakinaren gainean geratu da. Hona hemen aipatutako ebazpena:

El Consejo Rector se da por enterado de la resolución para aprobar la modificación de créditos del presupuesto, por crédito adicional (Exp. 1/2023) y del informe de intervención sobre sostenibilidad financiera. A continuación se recoge la citada resolución:

**AURREKARIAK:**

**ANTECEDENTES:**

1. Kreditu-transferentziaren bidez 2023rako Arrigorriagako Udal Euskaltegia erakunde autonomoaren aurrekontuaren kredituak aldatzeko espedientea (1/2023 esp.) aztertu da.

1. Se ha examinado el expediente de modificaciones de créditos del Presupuesto del organismo autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia para 2023, por transferencia de créditos (Expte. 1/2023).

2 Kreditu transferentziaren 1/2023 aurrekontua aldatzeko espedientea justifikatzeko, beharrezkoa da Gastu Pertsonalaren 1. kapituluko zenbait partidari

2. El expediente de modificación presupuestaria 1/2023 de transferencia de crédito se justifica por la necesidad de dotar crédito a varias partidas del capítulo 1 de



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

kreditua ematea, soldaten igoeraren handitzeagatik.

Gastos personal por el incremento de la subida salarial.

3. Kontu-hartzaile delegatuak emandako txostena dago, organo horren eskumena eta aipatutako aurrekontu-aldaketa onesteko legezko baldintzak betetzen direla bermatzen duena.

3. Se dispone del informe emitido por la intervención delegada que avalan la competencia de este órgano y el cumplimiento de los requisitos legales para aprobar la citada modificación presupuestaria.

Honenbestez, indarreko legeriak ematen dizkidan eskumenak baliatuta, eta honako hauetan oinarrituta:

Por todo lo anterior, y en virtud de las atribuciones que me confiere la legalidad vigente y sobre la base de los siguientes:

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

## FUNDAMENTOS DE DERECHO:

I. Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren (abenduaren 2ko 10/2003 Foru Araua) 28 a) eta 29. artikuluak.

I. Los artículos 28 a) y 29 de la Norma Foral 10/2003, de 2 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales.

II. Aurrekontu Exekuzioaren Udal Araudiaren 6. artikulua.

II. El artículo 6 de la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria correspondiente.

## HONAKO HAU EBATZI DUT:

## HE RESUELTO:

**Lehenengoa:** Kreditu-transferentziaren bidez 2023rako Arrigorriagako Udal Euskaltegi erakunde autonomoaren aurrekontuaren kredituak aldatzeko espedientea (1/2023 esp.) onestea, gastuen eta diru-sarreren egoeretan honako aldaketa hauek sartuz:

**Primero:** Aprobar el Expediente de Modificaciones de Créditos del Presupuesto del organismo autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia para 2023 por Transferencia de Créditos (Exp. 1/2023), introduciéndose en los estados de gastos e ingresos las siguientes modificaciones:



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

## GASTUEN EGOERA / ESTADO DE GASTOS

## KREDITUEN BAJAK / BAJAS DE CRÉDITOS

| PARTIDA | IZENA / DENOMINACIÓN | GUTXIKUNTZA DECREMENTO |
|---|---|---|
| 3350-221.08 | PRODUCTOS FARMACIA/FARMAZI EKOIZKINAK | 2.000,00 € |
| 3350-221.09 | PROD.LIMPIEZA Y ASEO /GARBIK.ETA TXUK.EKOIZKINAK | 1.000,00 € |
| 3350-226.01 | CANONES/KANONAK | 2.000,00 € |
| 3350-226.04 | ASESORAMIENTO JURIDICO/LEGE AHOLKULARITZA | 3.000,00 € |
| | | **8.000,00 €** |

## KREDITUEN ALTAK / ALTAS DE CRÉDITOS

| PARTIDA | IZENA / DENOMINACIÓN | GEHIKUNTZA INCREMENTO |
|---|---|---|
| 3350-160.01 | C.PATRONAL S.S./GIZARTE ASEGURANTZAKO KUOTA | 8.000,00 € |
| | | **8.000,00 €** |

**Bigarrena:** Egintza hau irmoa eta betearazlea denez eta ondorengo izapiderik behar ez duenez, Funtsen Kontu-hartzailetzako Zerbitzuek kontabilitatean islatuko dute onetsitako kreditu-aldaketa lehenbailehen.

**Segundo:** Siendo este acto firme y ejecutivo sin necesidad de ulteriores trámites procede que por los Servicios de la Intervención de Fondos se refleje en la contabilidad la modificación de créditos aprobada con efectos inmediatos.

**Hirugarrena:** Egintza horren berri ematea Artezkaritza Batzordeko hurrengo bileran eta Udalbatza Osoari, egiten duen lehenengo bilkuran.

**Tercero:** Dar cuenta de este acto en la próxima reunión del Consejo Rector y al Ayuntamiento Pleno en la primera reunión que celebre.

**4.- 2024. URTEAN EZARTZEKO 2023KO AURREKONTUAREN LUZAPENAREN BERRI EMATEA.**

Artezkaritza Batzordeak 2024ko ekitaldian aplikatzeko 2023ko ekitaldiko

**4.- DAR CUENTA DE LA PRÓRROGA DEL PRESUPUESTO DE 2023 PARA SU APLICACIÓN EN EL EJERCICIO 2024.**

El Consejo Rector se da por enterado de la Resolución de la presidenta delegada referente



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

aurrekontuaren luzapenari buruzko presidente delegatuaren ebazpenaren berri izan du. Hona hemen aipatutako ebazpena:

a la prórroga del presupuesto de 2023 para su aplicación en el ejercicio 2024. A continuación se recoge la citada resolución:

## KONTUAN HARTUZKOAK ETA OINARRIAK

**LEHENENGOA:** Udalaren 2023ko aurrekontua luzatuaren indarraldia abenduaren 31n iraungi zen, baina 2024. urteari dagokion aurrekontua onetsi gabe zegoen oraindik.

**BIGARRENA:** Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren 50. artikuluan aurrekontuaren luzamenduaren araubidea jaso da. Bertan, hauxe ezarri da:

*50. artikulua. Luzamenduaren araubidea:*

*1. Ekitaldi bateko aurrekontu orokorra hura hasten denerako indarrean ez badago, aurreko ekitaldikoa luzatutzat joko da berez.*

*2. Ezarritako arautegiaren arabera luzatzen diren kredituen zenbatekoak amaitutako azken ekitaldi ekonomikoko azken egunean onetsitakoak balira legez ulertuko dira, hots, ekitaldi horretan baimendutako transferentzia, zabalkuntza eta gainerako aldarazpenak konputatu ondoren.*

*3. Aurreko ekitaldian amaitu beharreko edo ekitaldi horretan bakarrik hartuko ziren kredituez edo beste sarrera berezi edo uki- tuez finantzatu beharreko zerbitzuetarako edo egitarau-taldeetarako kredituak ezin izango dira inoiz luzagarritzat hartu.*

*4. Konpromiso-kredituak berez sartuko dira luzatutako aurrekontuan.*

**HIRUGARRENA:** Beharrezkotzat jotzen da luzatuko diren kredituetan doikuntzak egitea, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren 50.3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, bai eta Bizkaiko Toki-Erakundeen aurrekontu-

## CONSIDERANDOS Y FUNDAMENTOS

**PRIMERO:** La vigencia del presupuesto prorrogadao 2023 del Ayuntamiento ha expirado a fecha 31 de diciembre, sin que esté aprobado el correspondiente presupuesto para el año 2024.

**SEGUNDO:** La NF 10/2003 presupuestaria de las Entidades Locales establece en su artículo 50 el régimen de prórroga de presupuesto, según consta

*Artículo 50 El Régimen de Prórroga:*

*1. Si los Presupuestos Generales correspondientes a un ejercicio no hubiesen entrado en vigor al iniciarse éste, se entenderán automáticamente prorrogados los del ejercicio anterior.*

*2. Los créditos que, conforme a la normativa establecida, fuesen objeto de prórroga se entenderá por los importes aprobados al último día del ejercicio económico finalizado, es decir, una vez computadas las transferencias, ampliaciones y demás modificaciones que hubiesen sido autorizadas en dicho ejercicio.*

*3. En ningún caso tendrán la consideración de prorrogables los créditos destinados a servicios o grupos de programas que deban concluir en el ejercicio anterior, o estén financiados con créditos u otros ingresos específicos o afectados que exclusivamente fueran a percibirse en dicho ejercicio.*

*4. Los créditos de compromiso se incluirán de forma automática en el presupuesto prorrogado.*

**TERCERO:** Resulta necesario hacer ajustes a los créditos objeto de prórroga en virtud de lo dispuesto en el artículo 50.3 de la Norma Foral presupuestaria de entidades locales; y también dar cumplimiento a lo dispuesto en la Norma Foral 5/2013 de estabilidad



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko 5/2013 Foru Arauan xedatutakoa betetzea ere.

presupuestaria y sostenibilidad financiera de las Entidades Locales de Bizkaia.

**LAUGARRENA.-** Egindako doikuntzak presidente delegatuak onetsi beharko ditu, aipatu artikuluaren 9. puntuaren arabera:

*"9. Luzatutako aurrekontuan doitzeak egin behar badira, esaterako, luzatu gabeko diru-sarrerak direla eta, finantza karga handiagoak direla eta, aurreko 6.paragrafoan aurrez ikusitako ordain-sarien gehikuntza dela eta, aurrekontuan jasotako konpromiso kredituak direla eta, bai eta beren izaera dela medio hornidura gehitzea eskatzen duten beste gastu mota batzuk direla eta;bada, halakoetan, udalburuak egingo ditu doitze horiek, aurretiaz kontuhartzaileetzak txostena egin ondoren, eta, betiere, horretarako nahiko finantzazio dagoenean".*

**CUARTO:** Los ajustes efectuados deberán ser aprobados por el presidente delegado conforme al punto 9 del artículo antes citado:

*"9. Los ajustes que haya que realizar en el presupuesto prorrogado como consecuencia de ingresos no prorrogados, de mayores cargas financieras, incremento retributivo previsto en el apartado 6 anterior, los créditos de compromiso incluidos, así como otro tipo de gastos que por su naturaleza económica exijan un incremento en sus dotaciones, se realizarán por el Presidente de la Corporación, previo informe de la Intervención, siempre que exista financiación suficiente para ello".*

**BOSTGARRENA:** Ondorio gisa, honako aurrekontu LUZAUTA 2024 geratuko litzateke, ataletan banatuta eta xehatuta:

**QUINTO:** Como conclusión, resultaría el siguiente presupuesto PRORROGADO 2024 resumido por capítulos y desglosado:

| **KAP.** CAP. | **SARRERAK** / INGRESOS | **LUZATUTA** PRORROGADO 2024 |
|---|---|---|
| 1 | Zuzeneko zergak / Impuestos Directos | |
| 2 | Zeharkako zergak / Impuestos Indirectos | |
| 3 | Tasak eta bestelako sarrerak / Tasas y otros ingresos | 15.020,00 |
| 4 | Transferentzia arruntak / Transferencias corrientes | 383.908,41 |
| 5 | Ondare sarrerak / Ingresos patrimoniales | 10,00 |
| **A** | **SARRERA ARRUNTAK** **INGRESOS CORRIENTES** | 398.938,41 |
| 6 | Inbertsio errealak besterenganatzertik eta hirigintzako jardueretatik ondorioztatutako beste sarrera batzuk / Enajenación de inversiones reales y otros derivados de actuaciones urbanísticas. | |



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

| | | |
|---|---|---|
| 7 | Kapital transferentziak / Transferencias de capital | |
| 8 | Finantza aktiboak / Activos financieros | 12.000,00 |
| 9 | Finantza pasiboak / Pasivos financieros | |
| **B** | **KAPITAL SARRERAK**<br>**INGRESOS DE CAPITAL** | 12.000,00 |
| | | |
| **C=A+B** | **GUZTIRA / TOTAL** | **410.938,41** |

| **KAP.**<br>CAP. | **GASTUAK** / GASTOS | **LUZATUTA**<br>PRORROGADO 2024 |
|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak / Gastos de personal | 375.770,00 |
| 2 | Ondasun arrunten eta zerbitzuen ersoketa / Gastos en bienes corrientes y servicios | 20.600,00 |
| 3 | Finantza gastuak / Gastos financieros | |
| 4 | Transferentzia arruntak / Transferencias corrientes | 110,00 |
| **D** | **GASTU ARRUNTAK**<br>**GASTOS CORRIENTES** | 396.480,00 |
| 6 | Inbertsio errealak / Inversiones reales | 100,00 |
| 7 | Kapital transferentziak / Transferencias de capital | |
| 8 | Finantza aktiboak / Activos financieros | 12.000,00 |
| 9 | Finantza pasiboak / Pasivos financieros | |
| **E** | **KAPITAL GASTUAK**<br>**GASTOS DE CAPITAL** | 12.100,00 |
| | | |
| **F=D+E** | **GUZTIRA / TOTAL** | **408.580,00** |

**SEIGARRENA:** Luzatutako aurrekontuak aplikatu beharreko araudia betetzen du, 515/2023 eta 516/2023 Kontu-hartzailetzako txostenek jasotzen duten bezala.

Honenbestez, indarreko legeriak ematen

**SEXTO:** El presupuesto prorrogado cumple la normativa a aplicar, tal y como lo recogen los informes de Intervención 515/2023 y 516/2023.

Por todo lo anterior, y en virtud de las atribuciones que me confiere la legalidad



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

dizkidan eskumenak baliatuta,

vigente,

**HONAKO HAU EBATZI DUT:**

**HE RESUELTO:**

**Lehenengoa.-** 2024. urterako aurrekontuaren luzapena eta luzatutako aurrekontuari egindako doikuntzak onartzea.

**Primero.-** Aprobar la prórroga del presupuesto para el año 2024, así como los ajustes efectuados.

**5.- 2023KO 4. HIRUHILEKOARI DAGOZKION ETA EBAZPENEN BIDEZ ONARTUTAKO FAKTUREN BERRI EMATEA.**

**5.- DAR CUENTA DE LAS FACTURAS APROBADAS POR RESOLUCIÓN CORRESPONDIENTES AL 4º TRIMESTRE DE 2023.**

Artezkaritza Batzordea presidente delegatuak 2023ko 4. hiruhilabetekoari dagozkion fakturak onartzeko ebazpenaren jakinaren gainean geratu da, zenbatekoa 406,62 eurokoa da.

El Consejo Rector se da por enterado de la resolución de la presidente delegada para aprobar las facturas correspondientes al cuarto trimestre de 2023, y cuyo importe asciende a 406,62 €.

**6.- 2024. URTEKO LAN-EGUTEGIAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.**

**6.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL CALENDARIO LABORAL PARA EL AÑO 2024.**

Artezkaritza Batzordeak aldeko 15 botorekin (EH-BILDUren 7, EAJ-PNVren 6, A.GARAren 1 eta NOAren 1) eta udal talde sozialistaren 2 abstentziorekin 2024ko lan-egutegia onartze aerabaki du.

El Consejo Rector por 15 votos a favor (7 de EH-BILDU, 6 de EAJ-PNV, 1 de A.GARA y 1 de NOA) y 2 abstenciones de Udal talde socialista, acuerda aprobar el calendario laboral para el año 2024.

**2024. URTEKO LAN EGUTEGIA/** CALENARIO LABORAL AÑO 2024

| HILAK / MESES | **LANEGUNAK**<br>DIAS LABORABLES | **JAIEGUNAK**<br>DIAS FESTIVOS |
|---|---|---|
| Urtarrila/Enero | 22 | Urteberri eguna / año nuevo: 1<br>Errege eguna / día de reyes: 6 |
| Otsaila/Febrero | 21 | |
| Martxoa/Marzo | 19 | Ostegun santua / jueves santo:28<br>Ostiral santua / viernes santo:29 |



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

| | | |
|---|---|---|
| Apirila/Abril | 21 | Pazko astelehena / lunes de pascua:1 |
| Maiatza/Mayo | 22 | Langileen eguna /Día trabajadores-as: 1 |
| Ekaina/Junio | 20 | - |
| Uztaila/Julio | 20 | Madalena: 22<br>Santiago Apostolua / Santiago Apostol: 25<br>San Ignacio: 31 |
| Abuztua/Agosto | 21 | Ama birjinren jasokundea/Asunción virgen: 15 |
| Iraila/Setiembre | 21 | |
| Urria/Octubre | 23 | Jai nazionala / fiesta nacional: 12 |
| Azaroa/ Noviembre | 20 | Santu guztien eguna / día de todos los santos: 1 |
| Abendua/Diciembre | 20 | Konstituzioaren eguna / día de la Constitución: 6<br>Gabonak: 25 |
| Guztira/Total | 250 | |

Lan egutegi hau osatzeko honako hauek hartu dira kontuan:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2024ko jaiegunen egutegia onartu zuen 71/2023 Dekretua, 2023ko maiatzaren 30ekoa.

2. 2023ko irailaren 12ko ebazpena, Bizkaiko lurraldeko Lan eta Gizarte Segurantzako ordezkariarena, 2024 urterako Bizkaiko Lurralde Historikoaren tokiko eta lurraldeko festen egutegia ezartzen duena.

**1) IRAKASLEAK:**

250 lanegun - 55 lanegun (eskola-egutegia+ oporrak) = 195 lanegun.

195 egun x 7 ordu = 1.365 ordu

(3 ordu lanalditik gorakoak)

URTEKO LANALDIA: 1592 ORDU

- 1362 ordu:

Este calendario se ha confeccionado según:

1. El calendario de días festivos de 2024 para la Comunidad Autónoma Vasca aprobado por Decreto 71/2023, de 30 de mayo de 2023.

2. Resolución de 12 de septiembre de 2023 de la delegada de Trabajo y Seguridad Social de Bizkaia, por la que se aprueba el calendario de las fiestas locales y general del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2024.

**1) PROFESORADO**:

250 días laborables - 55 días (calendario escolar + vacaciones) = 195 días laborables.

195 días x 7 horas = 1.365 horas

(3 horas exceso de jornada)

1592 HORAS JORNADA ANUAL:

- 1362 horas:



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

- Zentroko titularrak 128 ordu izango ditu eskolaz kanpoko jarduerarako, batzarretarako, barnetegietarako, txangoetarako, irakasleen prestakuntzarako edo eskatzen diren beste edozein jardueratarako.

- 128 horas de disponibilidad del titular del centro para actividades extralectivas, reuniones, internados, formación del profesorado u otro tipo de actividades que se requieran.

- 102 konpentsazio ordu, irakaskuntzaren bereizgarritasunagatik eta zerbitzuaren ordutegi-koadroengatik, hori eskariaren ezaugarrietara egokitu behar delako.

- 102 horas de compensación por la especificidad propia de la enseñanza y de los cuadros horarios del servicio, ya que éste debe adecuarse a las necesidades de la demanda.

**2) ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA**

250 lanegun - 22 opor egun - 4 lanalditik gorakoak = 224 lanegun.

1592 ORDU, URTEKO LANALDIA:

- 209 egun x 7 h = 1463 ordu
- 15 egun x 9 h = 135 ordu

1598 ordu

(6 ordu lanalditik gora)

Ordutegia hurrengoa izango da: astelehenetik ostiralera 8:00etatik 15:00etara. Matrikula garaian eta ikasturtearen bukaeran, ostera, lanaldia 9 ordukoa izango da, 15 egunetan goizez eta arratsaldez. Azken ordu hauek, UDALHITZ Akordioaren 39. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz konpentsatuko zaizkio goizez eta arratsaldez lan egiteagatik. Beraz, konpentsatu beharreko 52,5 orduak Gabonetan, Aste Santuan edo Euskaltegiko langile buruarekin adostutako egunetan disfrutatuko ditu, beti ere ikasturteko eskola- ordutegia kontuan hartuz.

**2) AUXILIAR ADMINISTRATIVO**

250 días laborables - 22 días vacaciones - 4 días exceso jornadas= 224 días laborables.

1592 HORAS JORNADA ANUAL:

- 209 días x 7 horas = 1463 horas
- 15 días x 9 horas= 135 horas

1598 horas

(6 horas de exceso de jornada)

El horario sería de lunes a viernes de 8:00 a 15:00 horas, si bien en época de matriculación y finalización de curso la jornada diaria se extendería a 9 horas repartidas en horario de mañana y tarde durante 15 días al año. La compensación por esta distribución horaria de mañana y tarde durante los citados días ascendería a 52,5 horas anuales, calculadas aplicando el punto 3 del artículo 39 del UDALHITZ, horas a disfrutar en Navidades, Semana Santa o fechas que se convendrán con el responsable de personal del Euskaltegi y teniendo en cuenta el calendario escolar aprobado en cada momento.

Horrez gain, Udalhitzen 28. eta 60. artikuluek diotena Euskaltegiko langile guztiei ezarriko zaie.

Además será de aplicación para todo el personal del Euskaltegi lo establecido en los artículos 28 y 60 del Udalhitz.

**7.- FAKTUREN ZERRENDAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.**

Ez dago zerrendarik.

**7.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA RELACIÓN DE FACTURAS.**

No se presenta ningúna relación.

**8.- NORBERAK LEKARKEENA.**

Ez da ezer aipatzen.

**8.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

No se presenta ningún punto.

Horrela bada, bilera amaitutzat jo da eta guztiaren akta jaso da.

Se da por finalizada la reunión, extendiéndose la presente acta.

Arrigorriagan, 2024ko urtarrilaren 17an

PRESIDENTE DELEGATUA

arrigorriaga UDAL EUSKALTEGIA

IDAZKARI DELEGATUA



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus